

Xoxokan ere ez, aurten ez da tokatzen

Sanmielen bidetik, erabaki bera hartu du Xoxokako Jai Batzordeak / 2-6

AIURRI

Bastero Kulturgunea martxan

Udazkeneko egitaraua eta Ondarreta ikastetxearen 50. urteurreneko erakusketa, ikasturte hasierako berrikuntza nagusiak Andoaingo Basteron / 16



**Lau irakasleren
sentsazioak,
ikasturte berriko
lehen asteak
igaro ondoren** / 8-9



**Ospakizunik
gabeko
Sanmielak Urnietan,
eragile gazteen
ikuspegitik** / 2-3



**Gazte mugimendu
feminista errotzen
ari da eskualdean.
Andoaindarrak
martxan jarri dira** / 7

Guria
PENTSIO JATETXEA

Idiazabal, 48
URNIETA
943 00 56 50

Gora Urnieta
Gora Sanmielak!

MUAZPI

Harategia

- Bertako haragia
- Jaki prestatuak
- Delikatessen
- Ardotegia

Gora Urnieta!

Errekalde, 14. Urnieta
943 008 304 / 665 73 78 71
muazpi@gmail.com

Ospakizun hutsetik harago doan festa

Aurten ez da Sanmielik izan Urnietan, eta herriko gazteek nostalgiaz bizi izan dute iraileko azken asteburua. Unai Iraola, Anne Elustondo eta Malen Ezeiza gazte eragileen analisisa jaso dugu hurrengo lerrootan



Patata-tortilla eguneko argazkia, 2017ko Sanmieletan. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Marizulo kobazulotik irtenda behar zuen Mielak joan den asteburuan. Jaien lehen egunarekin batera jaitsi behar zuen elizako kanpandorretik, urnietar guztiak lekuko zirela. Patata tortilla lehiaketan eta herri bazkarian egon behar zuen gazteekin, baita goizean goiz Txanbolin Txistulari Bandarekin ere, Urnietako kaleak esnatzen dituen Dianan. Erraldoiekin dantzan

eta buruhandiekin haurren atzetik korrika egin behar zuen, eta agurra dantzatu azken egunean egiten den dantza-sokan. Baina beste herrietan gertatu den legez, Urnietan ere aurten ez da festarik izan.

“Hasiera batean, egoera lasaitu eta aurtengo Sanmielik ospatuko zirenaren esperantza nuen” dio **Unai Iraolak**, dantza-sokan parte hartzen duen gazteak. Hala ere, udako egitarauak ber-

tan behera gelditzen hasi orduko, Urnietako aurtengo jaiak oso bestelakoak izango zirela jabetu zen. Gauza bera gertatu zitzaion **Anne Elustondo** Txanbolin Txistulari Bandako kideari ere. Egoerak ezustean harrapatu arren, jaiak bertan behera geldituko zirenaren ideia burutik pasatu zitzaion: “Konfinamendua baliagarria izan zen normaltzat jotzen genituen gauzak nahi bezala egingo ez genituela jabe-

tzeko, eta Urnietako festak zaku horretan sartzen ziren”.

Inork baino lehenago dituzte gogoan Sanmiel jaiak Poxta Zahar gazte koadrilen elkarteko kideek, izan ere, euren jarduna herriko jaietan oinarritzen da, eta urtea hastearekin batera ekiten diote festen antolaketari. **Malen Ezeiza** elkarteko kidea da eta konfinamendua hasi aurretik hainbat ekitaldi lotuta zituztela dio: “Osasuna bermatzeko neurriak zeintzuk ziren ikusita, argi genuen Sanmielak ez zirela aurreko urteetan bezala ospatuko. Ez genekien noraino iritsiko ginen, baina behin udan sartuta ez genuen baztertzen herriko jaiak bertan behera gelditzeko aukera”.

Herritarren konpromisoa

Ospakizunetik asko eduki arren, arduratik ere badute jaiak. Izan ere, buru-belarri aritzen dira Urnietako elkarrekin hainbat hilabeteko lana eskatu dien egitaraua osatu eta herritarrei zer gozatua emateko. Gaueko giroa bezain beste probatu du goizetakoa Elustondok, txosnaguneko dantzaldiak bukatu bezain laster Dianan parte hartzen baitu. Jaietako egitarauan dagoen hitzordu jendetsuena izan ez arren, Elustondok dio ikusten duela jendea balkoira irtetzen. Diana Sanmielen “bereizgarria” den ekitaldia dela deritzo txistulari gazteak, “tradiziotik asko duena”. Aurten ere parte hartzeko asmoa zuen, baina ez dira entseatzeko batu. “Arraroa” egin zaio urnietarrari, iraileko azken asteburua itxaroteko beharrik gabe jai giroan murgiltzen baitziren diana prestatzeko saioetan.

Dantza-sokan parte hartu nahi duten kideak ere pare bat aste

lehenago biltzen dira. Unai Iraolaren esanetan, giro “berezia” sortzen da taldean, elkar ezagutzen ez den adin ezberdinetako jendea elkartu eta emanaldi bat prestatzen dutelako: “Helburua ez da izugarritzko ikuskizuna egitea, herrikideekin batera Urnietari zerbait eskaini eta dantzaz gozatzea baizik”. Joan den urtean hartu zuen parte lehenengoz Iraolak helduen taldean, baina hiru urtez jarraian dantzatu du gazteekin batera. Jaietako azken eguneko iluntzea girotzen du dantza-sokak eta Miela agurtzeko “modu polita” dela uste du urnietar gazteak: “Jende asko gerturatzen da ikustera, eta herrian dantzak garrantzia handia duenaren seinale da hori”.

Urnietarren amarauna

“Urtean zehar ikusten ez den konplizitate hori ikusten da Sanmieletan, adin ezberdintanetik eta koadriletatik at dagoena”. Herritarren harremanak sendotzeko eta estutzeko aukera moduan definitu ditu festak Ezeizak, ospakizunetik harago doazen jaiak direla uste baitu: “Urtean zehar bizitza herritik kanpo egiteko joera dago, baina inertzia horretan, Sanmielak iristean badago etxera bueltatzeko joera bat; oso giro polita sortzen da herri guztia batzen delako”. Jaietan familia txiki bat osatzen dela dio Unai Iraolak: “Herria bizitu egiten da”. Bat dator berarekin Anne Eluston-

"SANMIELAK IRISTEAN BADAGO ETXERA BUELTATZEKO JOERA BAT"

UNAI IRAOLA



belar eta eko denda
Elikagai, kosmetika ekologiko eta terapia natural alternatiboen txokoa

- Naturopata
- Akupuntorea
- Nutrizionista
- Makrobiotika
- Masajista
- Reiki
- Bach loreak
- Intolerantzi testa...

Idiazabal kalea,
32 bis behea
URNIETA
943 333 841



ITXASPE
gora urnieta! gora sanmielak!
FRUTATEGIA, IZOZKIAK ETA GOZOKIAK
Zelaialde, 2 • URNIETA TEL.: 943 009 427



Bazkaria Txosnagunean, 2015eko Sanmieletan. AIURRI

do ere, txistulariarentzat “ez dira festa batzuk soilik, horren atzean gauza gehiago daude. Egun bereziak dira urnietarrontzat, guk geure modura gozatzen ditugunak”.

“Aurten ez ditut haurrak koa-drilako kamiseta jantzita ikusi, ez eta balkoiak apainduta ere”. Nostalgiaz begiratu ditu Iraolak aurten ospatu ez diren Sanmie-lak; jai egunak ez ezik, horien aurreko asteburuan antolatzen den bertso afaria ere faltan bota du. Malen Ezeizarentzat, aldiz, “xumea bezain polita” da txosnen irekiera, baita horren ostean egiten den patata tortilla lehia-keta ere; herritar denek hartzen dute parte bertan, mozorrotuta, gau horretarako adostu den gaian oinarriturik. Jaien hasierak ematen duen ilusioa botako du faltan Poxta Zaharreko kideak, eta aurtengoak ospatu ez arren, egunotan herritarrak jaiekin gogoratu direla dio: “Denok izan

ditugu Sanmielak gogoan, baina aurten halakorik egingo ez den onarpen horretatik”.

Egoera berrira egokituta

Iazko festen aje emozionalak hurrengo urtera arte iraungo die urnietarrei. Aurtengoak nahi bezala ospatu ez arren, lagunarteko bazkariak egin dituzte gazteek, etxean zein tabernetan, jaien omenez. Gainera, datozen hilabeteetan hainbat kultur ekitaldi izango dira Urnietan, Poxta Zaharrek antolatu dituenak, tartean. Kulturari bultzada ematearen garrantziaz mintzo da Ezeiza, sektoreak bizi duen egoera zailak jakitun, garrantzitsua iruditzen baitzaio Poxta Zaharri Urnietako zein inguruetako artistei leku bat egitea.

Gauzak horrela, urriaren 17an irekiko du egitaraua herriko Kyxo taldeak, Gartxotekin batera Sarobe arte eszeniko gunean

egingo duen kontzertuan. Jaien debekuak elkartearen ikuspegia zabaltu duela uste du Poxta Zaharreko kideak, izan ere, gaueko giroarekin bat egiten duten kontzertuetara mugatu ohi da gehienbat euren kultur eskaintza. Beraz, Malen Ezeizaren hitzetan, oraingoan, musikaz ez ezik, bertsolaritzaz zein antzerkiaz gozatzeko aukera ere izango dute urnietarrek, aurki ezagutzera emango duten egitarauan: “Momentu polita suertatu zaigu horrelako ikuskizunetara jotzeko, beharrak deituta inoiz eskaini ez ditugun emanaldiak luzatzeko aukera suertatu baitzaigu”.

"URTEAN ZE HAR IKUSTEN EZ DEN KONPLIZITATE HORI DAGO JAIETAN"

MALEN EZEIZA



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Ez festak

Uda hasierako elkarrizketa bat, tabernako terrazan. San Fermin festak bertan behera geratzen zirela jakinarazi zuen Iruñeko Udalak. Urnietako parrandero peto bat ondoan. Ez zela posible, urteko parranda onenak kendu behar zizkiotela. Ondokoak: “Eta San Migelekin ere kontuz!” Garai haietan pandemia indarra galtzen hasia zen, ematen zuen okerrean pasata zela... Baina abuztu bukaeratik hona piztu egin da berriz ere. Eta noski. Festarik ez inon. Urnietan ere ez.

Jendeak onartua zeukan aspaldi ez zela festarik egongo. Ez txosnarik, ez gau pasarik, ez herri bazkaririk... ezer ez! Eta hala izan da. Herria festarik egongo ez balitz bezala sumatu dut. Asteburu normala. Gazteak ere txukun. Parranda gogoz, baina gurasoen etxean kateatuta, zintzo, gauerdirako. Hori taberna giroan murgiltzea erabaki zutenek, asko ez baitziren etxetik atera ere egin. Poliziaren presentzia handi samarra izan da Idiazabal kale nagusian. 10-15 minuturo Udaltzainak edo Ertzainak pasatzen ziren zaintza lanean, eta anonimotasunean mantentzea komeni.

Eguraldiak ere ez zuen sobera lagundu. Zaparrada handiak ostegun, ostiral eta larunbata eguerdira arte, eta euri txiki baino etengabea larunbat iluntzean. Klean egoteko girorik ez. Herriko jakintsuek dioten bezala, ordea, Sanmieletan ia beti jertsea bizkarrean, edota aterkia eskuan! Tabernariak lan moldea aldatu dute, eta

gaupaseroekin lortu ezin zutena eguerdiko edo arratseko poteoarekin berdintzen saiatu dira. Egon, badaude, gau giroa faltan bota ez duten tabernariak, Sanmielen osteko astelehenek taberna normal ireki dutenak, lehen aldiz aspaldiko partez.

Eta ni, gu. Normal. Pandemiak ez du eraginik izan gudan. Setentayuno eta setentaydos-eko kintoak urtero bezala batzartu gara, Zaldundegi jatetxean. Batzuk 50 urtetik gertu, etxeko lan ugari etxean, eta igandean biharamun handirik jasateko gogo handirik ez. Gaueko 21:00tarako denak zintzo demonio etxean, Elx-Reala partidarekin taberna zuloan oihu batzuk bota ostean. Urteak dira, behin gauak egunari gaina hartuta, mende erditik gertu gaudenok tokiz kanpo sentitzen garela, gazte lerdunen parranda giroan.

Etxeko epelean, ezusteko atsegina: pentatloia Azpeitian, eta han Julen Gabirondo Mozotegiko semea egurrean. Xabier Zaldia txapeldun handia estutzeraino, eta txapeldun orde, emaitza bikaina. Txapeldun-orde plazan, eta txapeldun ETBko mikrofonoen aurrean. Familia eta lagunei eskerrak, aurrena, bere jarduna osatzeko aukera emateagatik, eta Mikel Garaialde, minbiziak bi urte atzera eraman zuen lagun mina gogoan ondoren. San Migel ez festatan ere, herriko semea, Mikel, dagoen tokian harro egongo da! Urnietar guztiok bezala Julenekin.

JULEN GABIRONDO TXAPELDUN-ORDE IZAN ZEN PLAZAN, ETA TXAPELDUN ETB-KO ADIERAZPENETAN

MIKEL GARAIALDE DAGOEN TOKIAN HARRO EGONGO DA, URNIETAR GUZTIAK BEZALA JULENEKIN

Sentsibilizazio lana

Irailaren 29an EH Bilduk mahaitxo ipini zuen Zubitxo plazan "Mikel Deunaren egunean festarik ez dagoela, baina emakumearen borroak jarraitzen duela herritarrei gogorarazteko. Covidak festak ez egitea eraman gaituen bezala, datu larriak utzi dizkigu emakumearen egoeraren inguruan".



EHBILDU



Udal agintariak eta herritarrek dantza-sokan, Juan Bautista Zumalakarregi herriko seme ongileari esker ona agertzeko egin zuten festa egunean, 1929/10/17an. Zumalakarregi Kubara joana zen, eta dirua jarri ondoren eskatuta zeukan, urtero, Mikel Goiangeruaren egunarekin batera, Urnietako 60 herritar zaharrei diru-saria banatzea. AIURRI

Iraganeko Sanmielak

II. Errepublikako (1931-1936) garaia politikoki katramilatsua gertatu zen Estatu espainiarrean. Orduko liskar politikoek Urnietako gizartea ez ezik Sanmiel jaiak ere ukitu zituen, zeharka edo ez hain zeharka

Xabier Lasa URNIETA

Urnietan bizi ziren nazionalisten eta tradizionalista-karlisten bi familia politikoen arteko xextrak islatu ziren Sanmieletan hain zuzen (Urnietako parte ziren Oria auzoa eta Lasarteko zati bat aparte geratzen dira, beste-lako errealitate soziologikoa osatzen zutelako). Bi egunkarrietan, *El Día* nazionalista eta *La Constancia* tradizionalista-karlistan agertutako zutabeetan oinarrituta osatuko da segidako kronika.

1931ko apirilaren 5ean eta 12an, monarkia eraitsi eta II. Errepublikaren ezartzea eragin zituzten udal hauteskundeak egin ziren. Apirilaren 5ean, Goiburuko barrutian bost jeltzalez osatutako hautagaitza bakarra aurkeztu zen, eta horiek izendatuak izan ziren automatikoki, 29. artikularen arabera. Apirilaren 12an, Oztaran barrutian, bi hautagai zerrenda aurkeztu ziren: boskote abertzalea eta bikotea sozialista; lehen bostak hautatu zituzten auzotarrek gehiengoz.

Hortaz, Urnietako udal korporazioa hamar abertzalek osatu zuten: Jose Mari Belauntzaran alkatea, eta zinegotziak, Victor Almortza, Federiko Otaegi, Juan Lakarra, Jose Antonio Ormazabal, Gillerimo Lizeaga, Manuel Lasarte, Sebero Atxukarro, Ramon Lasarte eta Agustin Loinaz.

1932ko Sanmielak

Lander Etxaniz idazle euskaltzaleak *El Día* egunkarian (1932/10/06) Sanmiel eguneko zein bezperako ospakizunen

inguruko kronika egin zituen. Adierazi zuenez, bezperan, eliz kanpaiak eta itxaferoek jaien hasiera iragarri zuten, eta egunean zehar txistulariak aritu ziren kalean gora, kalean behe-
ra, gauean barrena, "... *alík eta oieratu giñan arte...*". Sanmiel bezperako gau horretan gertatutako pasadizo bat ere kontatu zigun Etxanizek: "(...) *Deun Mikel aurregun edo bezpera gauean, emengo Zubillaga tar Jakoba langile gizon gazteai 175 laurleko edo peseta galdu zitzaizkion. Eta ez ziran esku txarrean topatzia egoki. Emengo Barkaiztegi tar Josebak topatu zituan gau artan bertan; eta bai bereala bere jabe naigabetuai eman ere. Bejondeikela Joxe; orrela ezagutzen dituk gizonak; ez mingañez, eginkizun onez baizik*".

Sanmiel egunean, ostegunarekin, hiru ekitaldi nagusitu ziren: meza eta pilota partida goizez, eta dantzaldia arratsalde-ilunabarrean. Nabarmentzeko laugarren "elementu" bat egokitu zen kronikalariaren esanetan, jai egitarau ofizialean agertu ez zena: "... *esan bearrik ez dagona ere bai; zurruta ugari ardanto-*

kietan, eta itxura ontan, "cavernicola" izatea aldatu leike; baña "tabernicola" izatea, lana pran-ko".

Mezan zehar, udalgintzan abertzaletasuna urte bete lehenago sartu izana antzeman zen. Izan ere, bertan euskal kantutegia eliz liturgietan ere sustatu nahi zuten hainbat kantari ospetsuek –Gipuzkoan euskal abertzale-tasunaren inguruan mugitzen zirenak–, osatu baitzuten luxuzko abesbatza; hala nola, Mendikute, Laborda, Arin, Olaizola, Garbizu, Elozegi, Zubizarreta... Apaizak ziren horietako batzuk.

Ondoren, Kontsejupean, desfiozko pilota partida jokatu zen: pilotari bakarra (Lander Etxeberria urnietarra) biren (Sarobe andoaindarra eta Illarramendi usurbildarra) aurka.

Herriko abertzaleek ez zeukaten ahaztua San Migel santua

ALDERDIEN ARTEKO GIRO POLITIKO NAHASIAN IRITSI ZIREN SANMIELAK URNIETARA, 1934AN

urnietarrena ez ezik euskal aber-
tzaleen zaindaria ere bazela. Era
horretan, “(...) *Eusko batzokian
eta gañerako abertzale etxetako
leioetan, zuri, gorri orlegiko iku-
rrin eta zapiak ugari...*”.

**1934ko xextra, ardoaren legeak
eraginda**
Eskuineko errepublikano Le-
rrouxen gobernuak ardoaren
estatutuari buruz aurkeztu zuen
lege-proposamenak (desgrabazio
fiskalaren aldekoa) polemika
piztu zuen. Proposamena inda-
rrean jartzeak udalen ogasunen
hondamena zekarren ziurrenik,
izan ere, ardoa bezalako kon-
sumo gaiek eragiten zituzten
zergak jaso gabe geratu zitezkeen.
Kontuan izan udalen aurrekon-
tuko diru-sarrerren %30a, gutxi
gora behera, ardoaren zergetatik
zetoirela. Gobernuaren iragar-
penak, esan bezala, Kontzertu
Ekonomikoaren, eta azken ba-
tean, udal autonomiaren aldeko
erreakzio sutsua eragin zuen.
Protesta gisa aurrera eramane-
zen ekimenetako bat ordurako
Estatutuaren alde bat eginda
zebiltzan zinegotzi nazionalisten,
ezkerreko errepublikanoen eta
sozialisten dimisio kolektiboa
izan zen, 1934ko irailaren hasie-
ran. Urnietako alkate eta zine-
gotziek ere bat egin zuten era-
bakiarekin.
Krisialdi horri erantzunez,
Gipuzkoan, Emilio Muga gober-
nadore zibilak Batzorde Kudea-
tzaileak izendatu zituen herriz
herri. Gainerako herrietan be-
zala, Urnietan ere karlista eta
tradizionalistak hautatu zituen,
eta horiek irailaren 15ean egin
zuten lehen udalbatza. Honakoek:
Bartolome Ugalde (alkatea), eta
zinegotziak Manuel Izagirre,
Florentino Ugalde, Luis Rekondo,
Eugenio Aldanondo, Jazinto
Atxaga, Saturnino Larburu eta
Juan Jose Etxeberria. Denek
ere bat egiten zuten handik bi
urtetara heldu zen 1936ko uztai-
laren 18ko kolpe militarrekin,
eta irailaz geroztik honakoak
izan ziren udaleko agintariak:
Bartolome Ugalde (alkatea), Ma-
nuel Izagirre, Florentino Ugalde,
Luis Rekondo, Juan Joxe Etxe-
berria, Eugenio Aldanondo,
Jazinto Atxaga, Jose Ubillos eta
Jose Iraola.
Bi urtez atzera eginda udal
giro nahasian heldu ziren 1934ko
Sanmielak, eta besteak beste,
Urnietako EAJ alderdiko Uri
Batzak jaiei boikota egiteko deia

luzatu zien urnietarrei. Halaxe
jakinarazi zien *El Día* egunkari
nazionalistako irakurleei behi-
nik behin, *Kaletar bat* ezizeneko
urnietar batek 1934/09/27ko
zenbakian. Artikulugilea ziur
zen agintari berri tradizionalis-
tek porrota jasango zutela.
Lehia bizia piztu zen herriko
bi familia ideologikoen artean,
eta *La Constancia* egunkari tra-
dizionalistak Urnietako udal
berriaren alde jo zuen garbiki,
kontraeraso eginez nazionalis-
tei. Irailaren 29an, *Txiton* ezi-
zeneko idazle batek jaien alde-
ko kronika sutsua idatzi zuen:
“(…) *Siempre han sido animadas
las fiestas de este simpático pue-
blo guipuzcoano; pero este año
el prestigioso y celoso Ayunta-
miento, en sesión celebrada an-
teayer, aprobó un soberbio pro-
grama de actos que, a no dudar-
lo, rebasará con mucho las so-
lemnes fiestas patronales de años
anteriores*”. Segidan, bi egun
lehenago onetsitako programa
azaldu zuen. Irailaren 29an,
goizez, Urnieta eta Tolosako
txistularien diana eta itxaferoen
jaurtiketa. 10:00etan meza abes-
tua, Donostia eta Urnietako
zenbait abeslariarekin. Elizkizuna
amaituta, pilota partidua kon-
tsejupean, herriko bikotea Zi-
zurkilgo bikote baten aurka.
Ondoren, musika kontzertua.
Arratsaldean, herritarren on-
gietorria Andoaingo Udal Mu-
sika Bandari, eta erromeria
plazan bandarekin eta txistula-
ri, dultzainero eta akordeoi-
joleekin. “*Según nuestras noti-
cias, la animación existente en
San Sebastián, Hernani, Andoain,
Villabona y Tolosa es extraor-
dinaria, lo que hace presagiar
que la asistencia a las fiestas de
San Miguel en Urnieta se verán
concurridísimas como jamás
haya habido precedente*”, esanez
amaitu zuen kronika *Txiton*-ek.
Urriko lehen egunetan, Esta-
tu mailako testuinguruak dena
baldintzatu zuen, baita Urnie-
tako herritarren bizitza ere.
Izan ere, ezkerreko alderdi eta
sindikatuak CEDAren gobernu
eskuindarraren aurkako matxi-
nada antolatu zuten, eta grebak,
manifestazioak, sabotajeak...
burutu zituzten han hemen.
Salbuespen egoera ezarri zuen
gobernuak, eta besteak beste,
prentsarik ez zen kaleratu urri
hasierako lehenengo zenbait
egunetan. Bolada katramilatsu
hartan argitaratu ziren zenbaki

bakanetan zehar, soilik *La Cons-
tancia*-n topa dezakegu Urnie-
tari buruzko kronikaren bat,
Betikua ezizeneko idazleak si-
natuta. Honek, urriaren 3an,
jaien aurkako ustezko azpijokoak
salatu zituen. “(...) *Ni la rotura
de la tubería que conduce las
aguas a la villa; ni cierta mali-
ciosa presión ejercida sobre mú-
sicos y pelotaris, y otros elemen-
tos que nuestro dignísimo Alcal-
de señor Larburu, había contra-
tado para solemnizar las fiestas
con el beneplácito unánime del
celoso Ayuntamiento; ni la pro-
vocación soez y grosera de que
fue objeto la señora del Alcalde,
por una turba de ineducados
nacionalistas, no fueron suficien-
tes ni obstaculizaron en nada
para que el grandioso programa
de actos confeccionado por nues-
tro prestigioso Ayuntamiento se
desarrollara en todas sus partes...
Por noticias de buen origen sa-
bemos que cuantas personas
sensatas figuraban en las listas
del batzoki de nuestro pueblo,
han mostrado su disconformidad
y disgusto por las “txotxoladas”
llevadas a cabo por esos “gixajos”
separatistas que quieren antepo-
ner, sus odios y rencores al bie-
nestar, alegría y buena admi-
nistración de nuestro querido
“txoko”...*”.
Betikuak idazleak urriaren
1ean gehitu zuenez, urnietarrek
Sanmielak bakean eta alaitsu
ospatu zituzten aspaldiko partez,
“(…) *después de haber perdido
de vista para siempre, la tiranía
nacionalista que hemos venido
padeciendo durante largos años*”.
Zoritzarrez, ziurrenik beste-
lako bertsioa jakinaraziko ligu-
keen kronikarik ez zuen plaza-
ratu *El Día*-k garai hartan.
Orduko Urnietako erreallitate
sozio-politikora hurbil gaitza-
keten zenbait datu jakingarri
ager ditzakegu: 1933ko azaroko
eta 1936ko otsaileko Hauteskun-
de Orokorren eskutik. Lehenen-
goan, hona emaitzak: EAJ, 671;
PSOE, 175; Union Derechas, 171.
Bigarren goan, berriz: EAJ, 580;
Fronte Popularra (PSOE, EAE,
PCE...), 243; Coalición Contre-
volucionaria (eskuina), 175.

1936an Sanmielik ez
Bertan behera geratu ziren urte
hartakoak, egun batzuk lehen-
ago, irailaren 11n, kolpe milita-
rraren eragileek Urnieta okupa-
tu eta gero. Tradizionalista-kar-
listek hartu zuten udal agintea,

eta kolpe zaleek ezarri zuten
errepresioaren baitan, aipatzekoa
da San Miguel egunean, irailaren
29an, Meza Nagusiaren ostean,
iraganean Urnietako alkate eta
epaile izandako Rafael Barkaiz-
tegi eliza aurrean atxilotu eta
Andoaingo kanposantutaren hor-
man fusilatu zutela.

Sanmiel jaien lehiakideak
II. Errepublikako garaiarekin
jarraituz, kontuan hartu behar
dugu Urnietako Sanmielek lehia-
kide gogorrek eduki zituela,
jendea erakartzeko orduan: Do-
nostiako Udala 1927an antolatzen
hasi zen Euskal Jaiak batetik,
eta bestetik, euskal nazionalis-
moaren ospakizunak. Jende
ugari erakartzen zituzten eki-
taldiak izaten ziren biak ere.
Euskal Jaiak Donostian (Kons-
tituzio Plazan, Atotxan eta Zu-
bieta auzoan) irailaren azken
astean ospatu izan zen zenbait
urtetan. Astean zehar euskal
kultura, folklorea eta herri ki-
rolekin lotutako ekitaldi sorta
egiten zen; Euskal Herriko txis-
tularien bilkura, dantza txapel-
ketak...; igandean, berriz, Zu-
bietako auzoan meza nagusia
eta erreboteko partiduak, eta
hipodromoan dantzariak eta
herri kirolez osatutako jaialdia
antolatzen zen. Aste osoko os-
pakizunei amaiera emateko,
egundoko erromeria ospatzen
zen. Milaka eta milaka gipuzkoar
biltzen zen hipodromoko zelaie-
tan, euskal jantzi tradizionalaz
jantzita.
Bestalde, Errepublikan zehar
gizartean indar erakustaldi jen-
detsuak egitera ohitu zen euskal
nazionalisten mugimenduaren-
tzat, San Migel, debozio handi-
ko santua zen, Euskadiren zain-
daritzat hartzen zuten; euren
agendan, ospatu beharreko egun
gisa hartzen zuten irailaren 29a.
Etxeetako balkoietan ikurrina
jartzeko aparteko eguna izaten
zen, eta ospakizun publiko uga-
ri antolatzen zituzten han hemen,
horietan falta ezin zirelarik meza
nagusia, euskal nortasunaren
aldeko aldarriak, dantzari eta
txistularien emanaldiak, erro-
meriak...

**1934AN LEHIA BIZIA
PIZTU ZEN
URNIETAKO BI FAMILIA
IDEOLOGIKOEN
ARTEAN**

1933ko Sanmielak

Irailak 28

Festen hasiera, kalejira eta
etxfuegoekin.

Irailak 29

05:00 Diana txistulariekin.
11:30 Pilota partida: Orioko
Salegi, Urnietako
Leandro Etxeberriaren
aurka.

16:00 Aurreskua eta
erromeria, San
Juaneko txistulariekin
eta dultzaineroekin.
22:00 Kalejira biribilketan
eta erromeria.

Irailak 30

10:00 Bizikleta lasterketa.
Ibilbidea: Batzokia,
Bakero, Berrozpe,
Bakero, Iturain,
Batzokia.
10:30 Lapiko apurketaren
jolasa haurrentzat.
11.00 Korrika lasterketa:
Ibilbidea. Batzokia,
Posta, Sola, Posta,
Zaundegi, Plaza,
Belaundi, Batzokia.
12:00 80 m-ko lasterketa.
12:00 Zaku lasterketa, eta
haurrentzat jokoak.
15:00 Bolo txapelketa.
16:00 Berto saioa: Alkain,
Mitxelena eta Blanco.
16:30 Haurren aurreskua
eta erromeria, herriko
txistulariekin.

Urriak 1

05:00 Diana.
11:30 Pilota partida:
Isasa-Etxeberria //
Goenaga-Garagorri.
17:00 Erromeria,
Zumarragako
trikitilariarekin eta
Pasaiko txistulariekin.
22:00 Kalejiraren amaiera.

Urriak 2

11:00 Trontzalarien proba.
11:00 Haur jolasak.
15:00 Bolo txapelketa.
16:00 Aurreskua eta
erromeria, herriko
txistulariekin eta
akordeoilari batekin.

Urriak 8

Euskal Jaialdia: Donostiako
Saski Naski Poxpolinak eta
Ezpatadantzariak. Erromeria
Zumarragako trikitilariarekin
eta Pasai Donibane-
ko txistulariekin.



Herri kirol probak eta desafioak egitarauaren oinarri dira Xoxoka aldean. GARBIÑEUBEDA

"PENA HANDIA EMAN DIGU DENA BERTAN BEHERA UZTEKO ERABAKIA Hartu BEHAR IZANAK"

tera, pilota txapelketa antola genezakeen segurtasun neurri guztiak hartuz; baina azkenean erabaki genuen ez zuela merezi arriskatzek".

Hogeit bat lagunek hartzen dute parte Jai Batzordean urtero. Gaztea jendea da gehiena, auzoan bizi dena; gogotsu eta armonia ederrean aritzen dira lanean, eta ikusle ugari erakartzeko moduko ekintza ikusgarriak antolatzeaz gain, horietan parte hartzeko denbora ere hartzen dute. Esate batera, euren egiten dute herri antzerkia, edo eta, bi taldeen arteko herri kirolen desafioa.

Pena handiz hartutako erabakia

"Pena handia eman digu dena bertan behera uzteko erabakia hartu behar izanak. Auzokoak gara, borondatez aritzen gara antolakuntzan, eta nahiz eta buruhausteak eman, gozatu egiten dugu festek irauten duten aste osoan. Ea hurrengo urterako normaltzen den egoera".

Ubillosek zehaztu duenez, jaiez gain, auzoan urtean zehar pentsatuta zeuzkaten kultur ekintzen dinamika ere bertan behar utzi behar izan dute. "auzoari bizitza emateko asmoz, Xoxokako auzo elkarteak urte hasieran erabakia hartua zeukan formatu txikiko kultur ekitaldiak (hitzaldiak, musika kontzertuak...) eskolan antolatzeke. Baina hutsean geratu da asmoa. Ea noiz heltzen diogun egitasmo horri ere".

Xoxokan jairik ez da izango aurtengoan

Urriko lehen astean ospatzekoak ziren, ohi bezala. Osasun krisialdia dela eta, Jai Batzordeak jaiak bertan behera uzteko erabakia hartu du. "Arduraz jokatu nahi izan dugu", adierazi dio Aiurri astekariari Joseba Ubillos jai batzordeko kideak

Xabier Lasa URNIETA

Joseba Ubillos Jai Batzordeko kideak adierazi duenez "Normalki uztailan hasten gara antolaketa lanekin, eta orduan dena zintzilik utzi genuen, arreta jarritz egoerak nola eboluzionatzen zuen. Bagenuen itxaro-

pena behin udan aurrera joan ahala egoera onera etorriko zela, eta erne egon gara Euskal Herriko herri eta auzo jaiekin, eta batez ere Urnietan Sanmielei dagokionez zein erabaki hartzen zen. Azkenean, arduraz jokatu nahi izan dugu".

Arriskurik ez hartzeko erabakia

Ubillosek aitortu duenez, Jai Batzordeko kideek eztabaidan jarri zuten jende askorik bilduko ez zuen ekitaldiren bat antolatu ala ez. "Egia da ekintza batzuek ez dutela hainbesteko jendetza erakartzen. Esate ba-




Joseba Ubillos Jai Batzordeko kidea. AIURRI

Ospakizun klasikoak eta berriak Xoxokako jaietan, aurtengoan burutu ezingo direnak



Iazkoan pilota txapelketa antolatu zuten. AIURRI




Iaz zaldi lasterketa ikusgarria antolatu zuten. AIURRI



Auzotarren antzerki emanaldia, klasikoak jaietan. AIURRI



Topaketa feministan parte hartu zuten gazteak Goiburuko frontoian. AIURRI



Ainhoa Manterola. AIURRI

Buruntzaldeko Neska* Gazteak

Irailaren 19an topaketa feminista egin zuten Andoainen, Lasarten, Hernanin eta Usurbilen. Etorkizunari begira ere, ekimenak antolatzen eta borrokatzen jarraitzeko asmoa dutela nabarmendu du Ainhoa Manterola taldeko kideak

Mikel Arberas ANDOAIN

Zer da Buruntzaldeko Neska* Gazteak taldea?

Neska feministak saretzen hasi ginen, beharrezkoa ikusten baikeen Buruntzaldean talde feminista antolatu bat egitea. Guztion artean ekimenak egin, sarea sendotu eta esperientziak partekatze talde dela esango nuke.

Harrotu eta Erein goiburua erabili zenuten hilaren 19ko topaketa feministan. Zer esan nahi du?

Hasiera batean lema ezberdinak bildu genituen, baina egokiena eta esanahi sakonena zuena Harrotu eta Erein zela pentsatu genuen. Esangurak askotarikoak izan daitezke; harrotasun sentimenduarekin lotzen dugu geure desobedientzi izaera eta jarrrera. Horrez gain, gizartea harrotu nahi dugu. Gainera, askotan esan izan da ereindakoa

biltzen dela, hau da, etorkizunari begira borrokatzeko prest gaude, datozen belaunaldiak guk ereindakoa eta lortutakoa jasotzeko.

Nola sortu zen taldea?

Buruntzaldeko kide batzuk elkarren artean ezagutzen ginen eta feminismoaren arloan ideia bikaina iruditu zitzaigun talde bat sortzea eta saretzea. Horrez gain, konfinamendua baino lehen Andoango neska gazteen taldetxo bat sortu genuen, baina mementoko egoera zela medio, ez genuen ezer egin; beraz, talde horri zukua ateratu.

"IRUDITZEN ZAIGU JENDEA EGUN KONKRETUETAN BAKARRIK MOBILIZATZEN DELA"

tzen lagundu dio Buruntzaldeko Neska* Gazteak-en proiektuak.

Hilaren 19an deialdia zabaldu genuen ekitaldiz beteriko egunean neskek parte har zezaten eta 18 kide bertaratzea lortu genuen. Egund polita izan zen, goizean jokoak egin genituen, ondoren pankarta eta serigrafia tailerra, eta amaieran bazkari bat antolatu genuen Irunberri Kultur Elkartean.

Buruntzaldeko talde orokor bat dagoen arren, Andoainen, Hernanin, Lasarten eta Usurbilen bakoitzak bere azpitaldea du.

Nori zuzendua dago Buruntzaldeko Neska* Gazteak taldea?

Izenak esaten duen bezala, neska gazteei zuzenduta dago. Neska hitzak izartxo duela ikus daiteke, baina oraindik zalantzak ditugu zein den esanahia, hitza

bera oso malgua izan baitaiteke. Buruntzaldeko talde gisa geure subjektua zein den aztertu behar dugu eta eratzunak ematen saiatu.

Feminismoaren gainean gabezia edo ezjakintasun handia ikusten duzu gizartean?

Iruditzen zaigu jendea egun konkretu batzuetan bakarrik mugitzen edo zentratzen dela, esaterako, martxoak 8an. Horrelako egunetan parte hartuta urte osoan zehar egin beharrezkoa bete dutela dirudi, hau da, konformismo moduko batean

erortzen dira. Horrez gain, presaka bizi dugun gizarte kapitalista honetan ez da batere erraza borrokatzeko, militatzeko, diskurtsoak sortzeko eta subjektu aktibo bilakatzeko denbora edukitzea.

Aurrera begira ekintza gehiago dituzue pentsatuta?

Hilaren 19an egin genuena abiapuntua eta aurkezpen topaketa moduko bat izan zen. Oraingoz ez dugu ezer gehiago antolatu, baina Andoainen badugu taldearekin eta ekintzekin jarraitzeko asmoa. Gogo handia dut Buruntzaldeko taldearekin harremanetan egoteko, izan ere, koronabirusa dela eta ez dugu aukerarik eduki guztion artean zerbait antolatzeko. Airean geratu da eskualdekook elkartzearena.



Taldekide batzuk sentsibilizazio lanetan. ARGAKJLABEAXXX

Harremanetan jartzeko bideak

Buruntzaldeko Neska* Gazteak taldeak sare sozialak martxan jarri ditu harremanetarako eta informazioa zabaltzeko. Horrez gain, taldean parte hartzea gonbidatzen ditu herrikideak: "Gurekin batu daitezke guztion artean ikasteko, borrokatzeko, harrotzeko eta ereiteko".



Ikasurte berrian protokolo zorrotza bete behar da ikastetxe guztietan.

Hasiera arraroa, babes falta eta etorkizun zaila

2020-2021. ikasturtea martxa hartzen hasita dagoela, lau irakasleren iritzia bildu nahi izan du Aiurri astekariak, ikasturtea nola hasi duten jakiteko; ziurtasun falta antzematen da lau protagonisten ahotan

Hiru galderako inkesta

1. Zer moduz joan da ikasturteko lehen hilabetea?
2. Erakundearen babesa sentitu duzue?
3. Zein etorkizun sumatzen duzue?

Andoni Urbistondo URNIETA

Covid 19-ak sektore asko kolpatu ditu gogor, ostalaritza batez ere, baina irakasletza ere ez da atzean geratu. Irakasleek haurrak dituzte euren ardurapean, eta 20-25 ikasleko gelatan neurri bereziak hartu behar izan dituzte, pandemia ikastetxeetan ez zabaltzeko. Neurriak hartu, edo hartzen saiatu, ez baitute irizpide zehatzik jaso. Ahal moduan ari dira, euren kabuz. Eskertuko lukete erakunde publikoen babes gehiago, baliabide alorrean, batez ere, eta etorkizunaz galdetzeak halako zailtza sorrarazten die. Beldurra hitza aipatu gabe, zalantzaz, ziurgabetasun handiaz mintzo dira Xabier eta Maddi Irastorza, Aizpea Goenaga eta Uxue Urdangarin irakasleak.

XABIER IRASTORZA
Donostiako Maria Reina
ikastetxeko irakaslea

1 Ikasturteko lehen hilabetea nahiko arraroa izaten ari da. Bai haurrak, eta bai irakasleak egokitze prozesuan gaude. Gauza asko aldatu dira. Ikastolara sartzeko momentua zeharo aldatu da: sarrerak leku desberdinetatik egin behar dira, tenperatura hartu, eskuak garbitu behar dira, ikasleek eta guk, gelako lana ere erabat aldatu da. Guk Amara Berri hezkuntza eredu erabiltzen dugu Maria Reinan, eta lan egiteko modua aldatu da. Heziketa sistema horretan gelatan lau txokotan egiten da lana, txoko bakoitzean lan desberdina, eta zikloka. Adin desberdinetako ikasleek elkarrekin egiten dute lana, talde lana sustatzeko, eta ikasle zaharragoek gazteagoi laguntzeko. Mahai guztiak ere sakabanatuta daude, eta oraindik egoera berri honetara egokitzen ari garela esango nuke.

2 Galdera horri erantzutea ez da erraza. Egia da Jaurlaritzak osasun eta protokolo irizpide batzuk plazaratu dituela, baina era berean eskola bakoitzari bere errealitatera egokitzeko aukera eman zaio. Eskola bakoitzak bere protokoloa aurkeztu du, Jaurlaritzak onartu du, eta ari gara, saiatzen, arauak betetzen. Babesari buruz, Jaurlaritzak ez du giza baliabide gehiagorik erraztu edo erabaki gure eskolarentzat, ez du espazio desberdin gehiago erabiltzeko baimenik eman oraingoz, eta egokitzen ari gara. Adibidez, irakasle bakoitzak denbora gehiago pasatzen du bere ikasleekin, burbuila-taldeak delako sistema. Bestelakoan, Jaurlaritzaren esku hartzea osasun eta segurtasun protokolora mugatu da.

3 Etorkizuna... Batek daki. Ez da erraza zer gertatuko den asmatzen. Nire gelan haur bat daukat klaseak etxetik jasotzen kamera baten bitartez, kontaktatu zorrotza zelako. Gu ere egoera horretara ohitzen ari gara, eta beharko, 10-15 egun etxea egin beharko baititu gauzak normal. Kasuak errepikatuko dira, ziurrenik, horiek saihestezinak baitira. Orduan eta ordu, egun gehiago egin klasean, denontzako hobe, horrek etxean egun gutxiago egingo ditugula esan nahiko baitu. Baina zuhurtzia handia eduki behar da etorkizunaz ari garela. Zuhurtzia eta zorte apur bat.

UXUE URDANGARIN
Añorgako Amassorrain
ikastolako irakaslea

1 Pandemiak eragindako egoera berriaz gain, Amassorrain eskola ere esperientzia berria izan da niretzat. Jakin mina, kezka eta beste izan ditut,




Xabier Irastorza.



Uxue Urdangarin.



Maddi Irastorza.



Aizpea Goenaga.

baina giro ona eta elkarlana sumatu ditut. Musukoarekin dena da hotzagoa, komunikazioa zailagoa. Protokoloa ez da zehatza, oso orokorra da, eta ez dakigu ondo ari garen edo ez. Agerikoa da protokoloa idatzi dutenak ez direla eskoletan egon. Langile guztiok ahal garena egiten ari gara. Burbuila taldeek halako nahasmena sortu dute, horien artean distantzia ez zela mantendu behar esan baitziguten. Zentzurik gabeko hainbat arau daude, berandu jakinaraziak, zuzendaritza urduri dago, hasi berriok galduta... Kaos handi samarra izan da zehaztu gabeko protokolo horren erruz. Noraezean ibili gara. Ulertze aldera, urtebetetze festak ospatu genitzakeen ez digute argitu, eta horrek zalantzan murgildu gaitu.

- 2 Erakundeen babesaren faltarekin lotuko nuke. Ez dakite zer behar ditugun. Murrizketak egon dira, eta horiek ez dute batere laguntzen kalitatezko hezkuntza lortzen. Hori saltzen dute lau haizetara, baina murrizketa eta baliabide eskasiarekin zaila da kalitatezko hezkuntza eskaintzea. Enpatia azpimarratuko nuke. Hezkuntzak jendarte batean sekulako garrantzia daukala esango nuke. Gaur-gaurkoz, baina, ez zaio garrantzia hori ematen.
- 3 Ez daukagu batere argi etorkizuna. Baikor izan nahi dugu, eta egoera aldatuko delako itxaropentsu, baina ezjakintasuna handia da. Gurasoen presioa hor dago, askok lanean joan behar dute, eta ekonomiak aurrera egin. Ezin

dute haurrak edozeinekin utzi. Konplikatu da. Denok behar dugu laguntza, eta denok jarri behar dugu gure partetik. Beldurra ere badugu. Eta berriaz etxeratzen bagaituzte zer? B plan bat beharko dugu. Aurreko etxeratzeak ezustean harrapatu gintuen, eta gauzei etorri modura erantzun genien. Orain eskarmentua dugu, formazioa, egoerari nola aurre egin pautu batzuk. Ez ginateke zerotik hasiko, baina baliabide aldetik ez gaude prest. Ahulune asko ditugu.

Ikasleak formatzen hasi behar dugu, txikitatik, gaitasun digitalean batez ere. Hezkuntza ere modernizatu behar da, ezin dugu liburuetan estankatu. Birus hau sistema modernizatzeko toke, ohar bat bezala ikusten dut, teknologia aurrera doalako, eta interesgarria litzateke aurrerakuntza hori hezkuntzarekin uztartzea. Gu hainbat euskarri sortzen ari gara beste etxeratze bat etortzeko arriskuaren aurrean, baina irakaskuntzan urte asko daramaten irakasleentzat ahalagin handia izan da. Gazteagoak garenok teknologia berriekin ondo moldatzen gara, baina gure aurreko belaunaldiak irakasleak ez hain beste.

MADDI IRASTORZA Andoaingo Ondarreta ikastetxeko irakaslea

- 1 Hasiera zalantza bete izan zen, eta moldaketa pilo bat egin behar izan ditugu: sarrean gelen eta bileren antolaketa, mahaiak banaka jarri, materiala ez partekatzeke neurriak... Duda asko. Haurrei

dagokionez, espero baino hobe moldatu dira, arau guztiak primeran betetzen ari dira: temperatura hartu, gel hidroalkoholikoa, musukoa noski... Heduok baino gaitasun handiagoa erakusten ari dira egokitzeke. Musukoak komunikazioa eta ulermena asko zailtzen du, batez ere euskara guztiz menderatzen ez duten, edo ezpainak irakurtzeko beharra duten ikasleen artean. Arnasteko ere oso nekagarria da musukoa.

- 2 Zuzendaritzari helarazi dizkiegu zalantzak, eta haiek Jaurilaritzara. Momentuz ez dute erantzunik eman. Pasa den ikasturtean ordenagailuak ikasle denentzat egongo zirela agindu ziguten, baina ez dira iritsi. Bigarren jangela bat egokitu behar izan da espazioak mantentzeko. Mahaiak eskatu dira, baina ez dira iritsi, Udalak eman ditu. Termometroak ere azken unean iritsi ziren. Laguntza pertsonalari dagokionez ere pasa den ikasturtean bezala gaude, beraz laguntza askorik ez dugula jaso esango nuke.
- 3 Ikasturte hau arraroa eta ezberdina izango da. Kasu batzuk agertu dira gela batzuetan. Gela osorik ez dugu itxi, momentuz. Errepikatuko den pautu izango dela esango nuke, eta gu ere etxeratzeke unea iritsiko zaigulakoan nago. Ohitu egin behar. Etxean ordenagailuak dituzten ikasleak badira, ez dago arazorik, baina gure ikasle askok ez dituzte. Amara Berri hezkuntza sistema erabiltzen dugu, eta gaur-gaurkoz sistema ezin da indarrean jarri, eta horrek

jarduera indibidualistak dakartzala uste dut. Horrek ekarriko dituen zehar kalteak zenbatekoak diren ikusiko dugu, baina izango du eragina. Oraingo distantziak mantendu behar dira, eta talde lanean oinarritutako hezkuntza sistema ezin da indarrean jarri.

AIZPEA GOENAGA Donostiako Maria Reina ikastetxeko irakaslea

- 1 Ahal den moduan. Zailtasun dezenterekin topatzen gara lan egiterako orduan. Protokoloak aplikatzeak klase orduak murrizten ditu. Protokoloak bete beharrak irakasgairako dugun denbora murriztu digu, zereginak gehitu baitzaizkigu: temperatura hartu, gelara sartzerako eskuak garbitu, komunera banaka joan, beste taldeak sartu edo ateratzean itxaron.... Ikasleen ahotsa entzutea kosta egiten zaigu musukoarekin. Gelek aireztatuak egon behar dutenez leiho eta ateak irekita eduki behar dira eta soinua entzuten da, eta haize eta euriarekin ezinezkoa da klasea ematea, euria gelara sartzen delako eta ateak dantzan jartzen zaizkigulako. Ikasleenganako gertutasuna lortzea ere zailagoa da. Aurpegiko keinu guztiak ez ditugu ikusten, eta begiak bakarrik ikusita, zer gertatzen zaien jakitea asko zailtzen da. Ikasleengan gerturatzean ere kezka handiagoa duzu, zer ukitu edo zer ez. Guraso bilerak egiteko ere 10 pertsonako taldeak eduki ditzakegu gehienez, beraz bilerak guztiak bikoiztu edo hiru-

koiztu egin zaizkigu. Arau xeble xamarra, hori, klasean 26ko taldeak ditugula ikusita. Nik neuk etxean egon behar izan dut egun batez eta etxetik eman dut saioa ikasleak gelan zeuden bitartean. Baina ikasleek ezin dutenez bakarrik egon, nire lankideei lana bikoiztu zaie, norbaitek beti egon behar baitu gelan.

- 2 Nik ez dut babesik sentitu, erantzukizunak gehitu zaizkigula esango nuke. Esate baterako, temperatura hartu eta hamarren bat gehiago badu hor hasten gara termometro ezberdinekin frogak egiten... Etxera deituz gero badakigu horrek familiari eragingo diola, eta familia bakoitzeko egoera oso ezberdina da.... Zenbat eztul egin behar du etxera deitzeko? Ez dugu ez lankide gehiago, ezta gela gehiago ere. Protokoloak garatzeko erabili behar den material guztia eskola ari da ordaintzen oraingo, eta ez dakit laguntza ekonomikorik jasoko dugun edo ez.
- 3 Zailtasun handiko kurtsoa izango dela iruditzen zait. Guk behintzat zailtasunak ikusten ditugu, baina aurrera segituko dugu. Etxeratutako egon ginenean ere aurrera egin genuen egoera ezezagun horri aurre egingez. Orain ere gauza bera egingo dugu.

BELDURRA HITZA AIPATU GABE, ZALANTZAZ ETA ZIURGABETASUNAZ MINTZO DIRA

POSTONTZIA

GARIKOITZ PLAZAOLA, AITZIBER SAROBE NATURKON GIPUZKOAKO NATUR TALDE ETA TALDE EKOLOGISTAK

Garapen ekonomikoa, jasangarritasuna eta ingurumena

Nekez ezkontzen dira hiru dimentsio horiek gurean, azken urteotako politika publikoa naturaren kontserbazioaren ikuspegitik aztertzen bada, bederen. Izen hori hartu duen sail berriaren buru izendatu dute Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzan eta badugu motiborik kezkatuta egoteko.

EAEko erakundeen egituraketak eta agintean egon diren alderdien botere banaketak ez dute lagundu, gaurdaino, gure ingurune naturalaren kontserbazioa eta biodibertsitatearen zaintza. Aurreko mendearen bukaeran Europako Batzordeak garapen jasangarria eta biodibertsitatea kontserbatu edota berreskuratzeko araudia eta plangintza onartu zituen, Europa osorako Natura 2000 sarea sortu eta kudeatzeko tresnak arautuz. Garai hartan eta ondorengo urteetan EA eta PSEren esku egon zen Ingurumen Sailak hartu zuen Europako legediaren transposizioa egiteko ardura batez ere, EAEen babestutako eremuak (parke naturalak, biotopoak, ...) Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatuz. Izendatu ostean, babestutako eremu horien kudeaketa Foru Aldundien eskumena da eta Aldundietan EAJ alderdiaren esku egon da, ia beti, Landa Garapenaren sailean. Alegia, eremu naturalen eta

basabizitzaren kudeaketa nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza kudeatzen dituen sail berak kudeatzen ditu Aldundietan; baina, zentzuzkoa izan daitekeena, saihestu ezinezko oztopoa bihurtu da. Izan ere, EAJk ez du interesik natur kontserbazioan; urteetan Jaurlaritzako eta Aldundiko ordezkariak ika-mikatan ikusi ditugu parke naturaletako patronatueta interes kontrajarriak babestuz: batzuek natur kontserbazioaren alde eta besteak babestutako eremuak abeltzainen eta basozaleen interesen mesedetan kudeatzearen alde. EAJren "eredu jasangarrian" ez baita ingurunearekiko eragina kontuan hartzen, ez da dirutan neurtzen, eta beraz, eragindako kalteak ez zaizkie ustiatzaileei ordaindu arazten.

Jaurlaritzaren egituraketa berrian Tapiaren sailak hartu du ingurumenaren ardura. Aldundiekin batera lerratu da sail berria, eta natur kontserbazionistok badugu kezkatzekorik Abaltzisketako alkateak Facebooken irailaren 10ean idatzi zuena irakurtzen badugu: *"Jaurlaritzako estruktura berrin, Ingurumena ezkerreko ta ekologistan eskutatik, Tapan aterkipea pasatzeala. Joe, ustekabeen harrapatu nau ta ikearrizko ilusioa ta*

esperantza sortuizkit. Oain, atzeko atetik sartu zaizkiguen Parke Natural da babestutako eremutako lege protekzionista zahar hairi hautsek arrotzea falta da. Ta geo, ganaduzale, ehiztari, terenojabe ta landa eremutako herri ordezkariakin adostuta berri batzuk ittea".

Jon Zubizarreta Abaltzisketako alkatearen eta Enirio-Aralar mankomunitateko ordezkariaren hitzak dira. EAJk Aralarren pista berriak egiteko ekimenak sortutako liskarrean mantentzen duen posizioa oso argi adierazten du, inork zalantzarik balu.

Kargua hartu berri du Tapia andereak eta normala denez, denbora gutxi izan du bere proposamenak plazaratzeko. Adi-adi gaude garapen jasangarritasunaren eta ingurumenaren esparruetan bere planteamenduak entzuteko. Irailaren 18an Euskal Telebistari eskainitako elkarrizketan ekonomia berdeaz aritu zen, proiektu berritzaile eta enplegu sortzaileak izan behar dutela esanaz, lehiakortasunaz. Enpresa eta lanpostu berriak sortzeaz, transformazio energetiko eta digitalaz, ekodiseinuaz, hondakinen kudeaketaz; alegia, produktibitateaz. Ongizate sozialak gure aktibitate ekonomikoa behar duela defendatu zuen, ohi bezala,

baina orain arteko eredu ekonomikoak ingurumenean eta bioaniztasunaren galeran izan duen eragina aipatu gabe.

Natur kontserbazioak sor dezake lanposturik. Naturaren ustiapenaren mesedetan diharduten hainbat enpresa eta ikerketa zentro jar daitezke naturaren kontserbazioaren eta bioaniztasunaren berreskurapenaren mesedetan. Herri honetan badago ezagutza eta bagaude eragileak horretan laguntzeko prest. Herritarrok ingurumen osasuntsua behar dugu, pandemiak saihesteko bioaniztasuna berreskuratu behar dugu, arnasa hartzeko natur ingurune osasuntsuak behar ditugu. Hori ekonomia bihurtzea eta horretan transformatzaileak eta lehiakorak izatea da sail berri horren benetako erronka, gure ustez, eta klima larrialdi egoeran lehentasuna behar lukeela uste dugu. Natur kontserbazionistak prest gaude bide horretan laguntzeko. Ondorengo belaunaldiak eskertuko digute.

JAURLARITZA BERRIAN TAPIAREN SAILAK HARTU DU INGURUMENAREN ARDURA



Miranda pasealekua. OROITUZ

Pintadak gaitzetsi ditu Oroituz elkarteak

"Elkarteak gogor salatu nahi du herriko biktimen memoriarentzat iraingarria den eraso hau"

Oroituz, Andoainen

Komunitatea

ANDOAIN

"Frankismoak Andoainen eragin zituen biktimen omenez Miranda pasealekuan jarritako oroi-garrietan pintadak agertu dira joan den astean. Hain zuzen, eskulturaren "Volveran Banderas victoriosas" (Cara al sol abestiaren pasarte bat) eta panelean "Subcampeon 1939" (kolpe militarren eraildakoen bizkar barre egiteko zenbaitzuk erabiltzen duten espresioa) idatzi dute. Oroituz, Andoainen elkarteak gogor salatu nahi du herriko biktimen memoriarentzat iraingarria den eraso hau".



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubxuelo.
Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocío Arias (Urmietan).
Diseinua: Goiñena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: **ERROITZ** **ALIATUAK:** **INSTITUTUAK:** **TOKIKOM**

BI UDALLERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA **Urmietako udala**

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berlindutako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: **BABESLEAK:**

Bukam **Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.**

andoaINDARRA
euskaraz



Euskalduna futbol taldea 1923ko maiatzean sortu zenean, bere zenbait bultzatzaile eta jokalarik Etxeberrieta zelai berrian atera zuten argazkia. Ezkerretik hasita: Antonio Lopez de Guereño, Roman Unanue, Ramon Gantzarain, Pablo Egibar, Alejandro Gantzarain, Izagirre, Pepe Saldias, Gabino Urrutia, Rufino Irazu, Jose Zatarain eta Juan Barrenetxea. UDALARTXIBOA



Roman Unanue Irulegi (Iturria: Peña Madridista el Aguanis).

Roman Unanue, Real Madriden jokatu zuen andoaindarra

Joan den abuztuaren 8an ehun urte bete ziren Roman Unanue Irulegi andoaindarra jaio zela. Real Madril futbol taldean sekula jokatu duen andoaindar bakarra dugu Unanue. Jokalari gisa egin zuen ibilbideari buruzko zenbait datu jaso ditugu

Xabier Lasa ANDOAIN

1900. urtean Andoainen jaio zen Roman Unanue. Gurasoak Miguel eta Gregoria ziren, eta anai-arrebak: Joxe Joakin, Eugenio, Juan Martin eta Fidela. Familia Plazalako tren geltokiaren ondoan bizi zen. Roman Unanueren iloba Luken Unanuek haren nortasunari buruzko lehen argibideak eskaini dizkigu: “Bihotz handiko gizona, atsegina zen. Medikuntza ikasketak Madrilan eta Zarago-

zan egin zituen, eta ondorengo urtetan Beasainen, Gabirian eta Lezon mediku gisa jardun zuen. Oso gertuko pertsona agertu zen beti bere kontsultara hurbiltzen zitzaizkion herritarrekin. Astuariaseko jatorriko emakume batekin ezkondu, eta bost seme-alaben aita izan zen; Donostian bizi izan zen bere azken urtetan. Luzea eta sendoa zen gorputzez, eta futbolearen normalki defentsan, erdian jokatu izan zuen”.

Roman Unanue gaztetan Madrilera joan zen medikuntza ikasketak egitera, eta bertan igaro zituen urteetan Real Madril taldean jokatu zuen, hiru denboraldietan hain zuzen (1920-1921, 1921-1922 eta 1922-1923).

Urte haietan oraindik ere Estatu espainiarrean ligarik ez zen indarrean jarri, taldeen arteko ligaxkak, torneoak edo eta adiskidetasunezko eta erakustaldiko partidak jokatzen ziren gehienbat.

Madrilan eskaintzen zituzten medikuntzako ikasturteak gainditu ostean, Zaragozako fakultatera joan zen karrera amaitzera, 1923an. Ordurako berak Zaragoza ezagutzen zuen, eta Zaragozako futbol zaleek ere aski ezagutzen zuten bera, jokalaria gisa. Izan ere, urte bete lehenago, 1922ko urriaren 17 eta 18an, jada estatuan talderik famatuena ziren Bartzelona eta Real Madril lehen Zaragozan adiskidetasunezko bi partida jokatu zituzten elkarren kontra. Esan beharrik ez dago zenbateko ikusmina eragin zuen zaragozarren artean gertakizun bikoitz hark. Honakoa izan zen Real Madrilan hamaikakoa: Mengotti, Manzanedo, Quesada, Silicia, Unanue, Megia, De Miguel, Moraleda, Torres, Bernabeu eta del Campo.

Zaragozan, beste bi denboraldi egin zituen futbolari gisa. Lehenbizikoa Union Deportiva Unversitarian jokatu zuen, Zaragozara medikuntza ikastera joandako euskaldun askoren antzera. Garai hura ez ezik orduko futbolaren mundua pittin bat erretratatzen digun pasadizoa kontatu ohi dute Zaragozan, futbol zale-tu zaharrenek: euskaldun horietako batek txapelarekin jokatzen omen zuen, eta joko zelaian, berarentzat gola sartzea baino garrantzitsuagoa izaten omen zen txapela buruan eustea. (Ciria, Pedro: *El sueño de ser grandes: historia social del nacimiento del futbol en Zaragoza, 1903-1936*).

Hurrengo denboraldian Zaragoza taldearekin aritu zen. Kapitainaren besokoa jantzita jokatu zuen liga osoa, nortasun sendoko jokalaritzat baitzeukaten.

Datu bitxi gehiago agertzen zaizkigu urte horietan, adibidez: 1924ko martxoan eta apirilean Aragoiko selekzioarekin jokatze-ko hautatu zuten, eta Kantabriako selekzioaren kontrako bi partidatan hartu zuen parte.

Unanue Zaragozan bizialdia egiten ari zen bitartean, Andoainen Euskalduna Andoaindarra kluba eratu zuten, 1923ko maiatzaren 28an, hain zuzen. Roman Unanue taldearen sorreraren sortzearen bultzatzaileetako bat izan zen, zuzendaritzan agertzen baitzaigu (Zatarain, Javier: *S.D. Euskalduna Andoaindarra. 75 urteurrena*).

Medikuntzako ikasketak amaituta, Zaragozako hiria eta bertako futbol taldea utzi, eta jaio-terrirra itzuli zen. 1924-1925 denboraldian Euskaldunarekin jokatu ondoren, futbola utzi zuen; eta harrezkero familiari eta mediku lanbideari eskaini zizkion bere bizitzako ahaleginak.

Futbolarekiko sukarra ez zen itzali Unanuerengan, eta kirol horri lotuta jarraitu nahi izan zuen. Horrela, badakigu epaile gisa ere jardun izan zuela, nahiz eta ezin ziurtatu zein mailatan, ezta zenbateko maiztasunez; izan ere, 1935eko ekainean, bera izan zen Beasainen jokatu zen Beasain-Real Sociedad adiskidetasunezko partidaren epaile lanak egin zituena.

Roman Unanue 80ko hamarkadaren hondarrean hil zen, Donostian. Duela hamar bat urte, omenaldia eskaini zioten Donostian bertan, Zaragoza Realaren kontra ligako partida bat jokatzerako etorri zen txanda batean. Zaragozan arrasto sakona utzi zuen seinale, zalantzarik gabe.



VITTORUL

Talde berria, liga berria

Errumaniako Lehen Mailan ari da denboraldi honetan, Jon Gaztañaga andoaindarra. Zipreko bi urteko esperientzia alde batera utzi eta Viitorul talde historikora egin du jauzia. Iritsi eta jokatzeko aukera izan zuen, 28 zenbakiarekin. Garaipenarekin hasiera eman dio abentura berriari. Gica Hagi klubeko zuzendaria da eta entrenatzailea Ruben de la Barrera gaztea.



AIURRI

Zumeatarraren deialdia

Atletismo sailak gaztetxoekin jarduera berrabiarazi nahi du, eta horretarako Arrateko bilera gelan bilera baterako deialdia egin du. Orduetegiak, taldeak, Covid-19ari buruzko protokoloa eta beste zenbait kontu hizpide hartuko dituzte. Ostiral honetan, 18:00tan hasita.



Balentria lortzeko ateetan geratu zen

Larunbat gauean telebistara iltzatuta geratu ziren kirolzale asko, Pentatloia finalari begira. Zaldia faborito bazen ere, ikuskizuna Julen Gabirondo urnietarrak jarri zuen. Erakustaldi ederra eman zuen, maila handiko kirolaria dela erakutsiz

Xabier Lasa ANDOAIN

Ezustekoa eman zuen irailaren 5eko kanporaketan. Eta finalean Zaldia txapelduna gogoz estutu zuen. Julen Gabirondok jarri zuen emozioa zezen plazan, nahiz eta Xabier Zaldia txapeldunaren atzetik joan proba guztian zehar. Txapeldun-orde izan zen euripean jokatu zen Euskal Pentatloia finalean. Meritu handiko emaitza lortu zuen, herri kirolen munduan ezusteko atseginean bilakatuz. Kontuan hartuta, gainera, 80 kilo azpitik dabilen kirolari batentzat ez dela batere erraza teknika eta indarra eskatzen dituen espezialitate batean ondo moldatzea. Segia mundutik dator, ondo dakite hori urnietarrek, eta berri samarra da gainerako kirol jardueretan. Horrela jarraituz gero, etorkizuna berea da.


Ederki estutu zuen iaz ere txapeldun izan zen Xabier Zaldia, baina honek probari neurria ondo hartuta diola erakutsi zuen. Saioa bukatu orduko, Elene Azpeitia ETBko kazetariak egin zion elkarriketan irabaztera joana zela aitortu zuen: “Pozik nago, baina egia esango dizut: irabaztera etorri naiz, eta pena hori daukat. Bigarrena egitea oso ondo dago, baina nire burua ondo ikusten nuen etxean, eta irabazteko ilusio txikia neukan. Banekien oso zaila zegoela, eta Xabier Zaldia zoriondu beharra daukat”.

Inguruko jendearekin oso esker oneko agertu zen Gabirondo: “Etxean laguntza handia daukagu emaztearekin, bi ume dauzkagu. Lanetik atera eta entrenatzera joan, eta ordu gutxi etxean... Emaztearengatik ez balitz ez litzateke posible izango ni gaur hona etortzea”.

Ondoan izan dituen beste zenbait pertsonak ere gogoan hartu zituen: “Paliza eta pasada nik hartu dut, baina gaurkoa inguruko laguntzaileei esker izan



Julen Gabirondo, joan zen larunbateko Pentatloiko finalaren ostean. ETB



Mikel Garaialde eta Julen Gabirondo 2014an, Xoxokako jaietan. AIURRI

Mikel Garaialde adiskidea gogoan

Pentatloiko finalean oso presente egon zen Mikel Garaialde herrikidea. Hura

gogoan hartu zuen Gabirondok. Aiurri.eus gunean 2014ko bideo bat ikusgai dago.

da; laguntzaile izan ditudan Beñat eta Luis Telleria anaiei, eta aizkoarekin nirekin aritu diren Pello Telletxea eta Iñaki Azurmendi esker”.

Azkenik, 2018ko abuztuan hil zen Mikel Garaialde urnietar

gaztea aipatu nahi izan du berreziki: “Bera da beti indarra ematen didana, eta nahiz eta bi urte izan joan zela, segundo bat ere ez da pasatzen hura gogoan eduki gabe. Maite zaitugu, Mikel! Eskerrik asko!”.

Txapela Urrizarentzat, eta txaloak bientzat

Partida ikusgarria jokatu zuten nafarrek, azken tantora arte ikusmina handia izan zen zaleen artean. Iruindarrak buruz buruko zazpigarren txapela eskuratu zuen. Saldiaskoak garaipena eskuratu ez zuen arren, erakustaldi bikaina eskaini zuen

Mikel Arberas HERNANI

Larunbatean partida ikusgarriaz gozatzeko aukera eduki zuten Galarretara gerturatu ziren zaleak. Maila goreneko partida, buruz buruko txapelketa eta sei aldiz txapelduna izan den Urriza iruindarra Endika gaztearen aurka. Horretarako finalera bertaratu ziren zaleekin jarri da kontaktuan Aiurri eta arratsalde horretan bizitutakoa kontatu digute.

Zaletuak testigu

Angel Miera: Urrizaren eta Endikaren arteko partida oso gogorra eta zirraragarria izan zen. Inorrek ez zuen amore ematen eta berdinketak asko izan ziren. Amaieraldean Urriza irabazten ari zenean (27-23) partida amaitzeaz zegoela zirudien; baina Endikak adorea erakutsi zuen eta berebiziko partziala egin zuen, berdindu egin zuen partida (27-27). Hala ere, azken hiru tantoak Urrizak eraman zituen, eta horixe amaitu zen partida.

Urrizaren amaierako keinuetan antzeman zitekeen partida gogorra izan zela, eta ez zuela erosotasunean jokatu. Hor ikus zitekeen Endikaren lana, zazpi aldiz buruz buruko txapeldunari oztopoak jartzen. Gainera, partidaren ondoren jakin nuen, arazo fisikoak eduki zituela eta zuela ehuneko ehunean jokatu. Hala ere, nabarmendu nahiko nuke bost falta egin zituela Urrizak, eta, beraz, hobeto aritu zen defentsan erasoan baino. Egia da ere, horrelako finaletan tentsioa izugarria dela. Zaletu ugari bildu ziren eta, aspaldiko partez, erremonteko partidak "normaltasunez" ikusteko aukera eduki nuen, betiere normaltasun neurriak errespetatuta.

Aitor Otaegi: Final ikusgarria izan zen. Argi ikusi nuen Endika lehen tantotik erasoan ari zeko asmoz irten zela kantxara; ahal zuenean tantoa bukatzen



Finalistak sari banaketa ekitaldian. UTS

saiatzen zen, eta hein handi batean lortu zuen. Hala ere, sakearekin ez zuen min handirik egin, nahiz eta, atzelaria izanda abantaila eduki behar zuen. Urriza, berriz, aurrelaria denez ez du ia sakea praktikatzeko, soilik txapelketa honetan. Esanak esan, Urriza defentsa lanak egiten pilotari onenetakoa izango da. Teknikoki oso ona da eta, gainera, atleta bat da, kantxako zoko guztiak ondo estaltzen ditu.

"FINALISTEN ARTEKO PARTIDA OSO GOGORRA ETA ZIRRARAGARRIA IZAN ZEN"

Jon Beldarrain: Jendetza bildu zen Galarretan, ez nuen sekula horrenbeste zale ikusi erremontearrekin gozatzen. Egungo egoera zen den jakinda, giro polita sortu zen frontoian. Partida ere zirraragarria izan zen, memento batzuetan akats batzuk egin zituzten, baina polita izan zen. Ansak jokatu zuen hirugarren partida ere polita izan zen, berezia; hiru biren aurka jokatu zuten.

"JENDETZA BILDU ZEN, EZ NUEN SEKULA HORRENBESTE ZALE IKUSI ERREMONTEAZ GOZATZEN"



Bi finalistak Galarretako kantxan. UTS

Txapela Iruñerrira eraman du Urrizak

Javier Urrizak erremonteko buruz buruko txapelketan zazpigarren txapela irabazi zuen larunbat arratsaldean Endikaren aurka (30-27). Iruindarrak asko sufritu zuen Endika Urrutiari irabazteko. Partida ikusgarria izan zen Galarretan jokatu zena. Endikak arriskatu egin zuen, tantorik ikusgarrienak egin zituen eta une batzuetan aurretik izan zen markagailuan; baina Urrizak sufritu, defendatu, izerditu, une txarrak irauli eta final ikusgarria itxi zuen. Final zirraragarria izan zen eta ikusleek gogotik eskertu zuten. Amaieraldean 27na berdinduta egon ziren, beraz, ikusmina izugarria sortu zen ikusleen artean. Azkenean, hiru tantoak jarraian egin zituen Urrizak, burua hotz edukita jokatu zuen eta ez zion Saldiaskoari aukerarik eman.

Bi finalistak adierazpenak

Javier Urriza: Urrizak partidaren amaieran aitortu zuen ez zuela bere egunik onena izan. "Askok sufritu dut, deseroso egon naiz, beldurtuta egongo banintz bezala, ez nuen asmatzen, baina borrokatuz 30era iritsi naiz. Ezin nuen tentsioa kendu, baina borrokatu beharra dago, eta orain hemen nago zazpigarren txapela eskuratuta. Pozik nago beste txapel bat lortzeagatik". Endikak eginiko lana ere nabarmendu zuen: "Korri asko egitea behartu nau, gaitasun harrigarriak ditu". "Orain txapela dastatu nahi dut, etorkizunari begira ikusiko dugu".

Endika Urrutia: Nahiz eta galdu Endikak gustura sentitu zuen eginiko partidarekin. "Oso pozik nago eginiko partidarekin, inoiz baino lan gehiago eman diot eta nire buruarekin oso konforme geratu naiz. Amaieran pare bat tantutan nekatuta nengoenez gauditu egin nau". Jokaldirik ikusgarrienak berak egin zituen eta jendearen txaloak eskertu zituen. "Ikusleei eskerrik beroenak. Oso polita izan da, gozatu egin dut. Hurrengo pausoa finala irabaztea izango da eta horretarako gai naizela ikusi dut".



Urmietako
udala

HITZORDUAK

UDAN ZEHAR EKITALDIAK AIURRI.ESU GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 1

ANDOAIN Lehiaketa

Udal egutegia osatzeko argazki-lehiaketa martxan jarri dute. Aurtengo gaia koloreak dira. Urriaren 1etik aurrera aurkez daitezke argazkiak.

Informazioa: Andoain.eus.

URNIETA Kanpaina

"Erosi Urnietan" bonoen erosketa kanpaina indarrean dago. 20 euroko ordainketarekin, 30 euro gastatu ahal izango dira herriko 56 saltoki ezberdinetan.

Informazioa: Urnieta.eus.

OSTIRALA 2

ANDOAIN Deialdia

Zumeatarra atletismo taldearen deialdia, denboraldi berriari begira.

18:00 Arrate frontoia, bilera gela.

LARUNBATA 3

ANDOAIN Ekitaldia

Ortzaikako karobiaren piztuera eta omenaldi ekitaldia, Burdina taldearen eskutik.

19:30 Ortzaika.

ASTELEHENA 5

URNIETA Ikastaroa

Sevillan, dantza saioa ikasi nahi duenarentzat.

16:00-17:30 Denda Berri.



Euskal Herri osoko 650 tontorrera zabaldutako nahi dute mezua, larunbat honetan. SARE

ANDOAIN, URNIETA Sareren deialdia eskualdeko mendietan

Presoen eskubideen aldeko irteerak antolatu dituzte, Euskal Herrian barrena. Andoaindarrei Onddo eta Zaburura igotzeko dei egin diete. Bekoplazatik abiatuko dira, 09:00tan. Urnietarrak aldiz Besabin deitu dituzte, 09:30ean Onddira igotzeko.

Urriak 3, larunbata.

ASTEARTEA 6

URNIETA Ikastaroa

Euskara ikastaroa Denda Berrin. Ordua zehazteke dago.

Denda Berri.

ASTEAZKENA 7

URNIETA Tailerra

Memoria tailerra Denda Berrin, bi txanda ezberdin.

16:00-17:30 Denda Berri.
17:30-19:00 Denda Berri.

ANDOAIN Tailerra

Jabekuntza eskolaren baitan, Nerea Redondok zuzendutako "Nola kudeatu egoera indartsu mantenduz" tailerraren hasiera. Ikastaro gehiago eskaintzen ari dira Jabekuntza eskolaren baitan.

Informazioa: Urigain.

OSTEGUNA 8

URNIETA Irteera

Bide osasungarriak, irteera Denda Berrinren eskutik.

09:30 Denda Berri.



Instalakuntzak egokitu dira. Egoera berrirako prest daude. ZUMBALOKURA

Zumbalokurak urriaren 5ean zabalduko ditu ateak

Aurreko egunetan lokalean informazio guztia eskaintzen egongo dira, 09:30etik 12:00tara

Zumbalokura

Babestutako edukia

ANDOAIN

Zumbalokurako instalakuntzatan gogoko duzun jarduera fisikoa egitea segurua da, ardura-dunek Covid-19ari dagokion protokoloa zorrotz betetzeko lan handia egin dutelako. Posible da, eta ahal da Zumban aritzea! Andoaingo ekimenak datorren urriaren 5ean zabalduko ditu ateak, eta dagoeneko egun haue-tan izena emateko aukera dago. Urriaren 5a baino lehen informazio guztia eskaintzeko prest egongo dira lokalean bertan, goizeko 09:30etik 12:00tara. Informazioa nahi baduzu, pasa zaitez Kale Nagusiko 9. zenbakitik.

Protokoloa

Segurtasun distantzia bermatzeko espazio berezituak egoki-

tu dira, eta irteera eta sarrera ezberdinak izango dira ikasgeletako pertsonen artean kontakturik egon ez dadin. Desinfekzioarako egokitutako alfonbra egongo da, lokalaren kanpoaldean. Eskuak nahi adina desinfektatzeko aukera izango da, bide batez.

Ikasturte osoa bertan egiteko aukera dago, eta asmoa hori da. Baina Osasun Alarma egoeratik ere galeraziko balute, Zumbalokurak ikasturtearen jarraipena on line bidez egiteko aukera bermatuko du.

INFORMAZIO GEHIAGO:

Zumbalokura.
Facebook: @Z1B1L
Kale Nagusia 9, behea.
Susana: 617 46 77 60.
Irati: 672 670 377.
Andoain.

Ortzaikako karobia

Burdina taldeak ekitaldia antolatuko du, larunbat honetan. Jose Paulo Usandizaga eta Manu Izagirre omenduko dituzte. Koronabirusak eragindako biktimei elkartzuna adieraziko diete, bide batez. 19:30ean hasiko da ekitaldia. Herrigunetik oinez joanda, gertu dago Ortzaika baserria.



AIURRI

ZUMBALOKURA - ANDOAIN -						
ORDUTEGIA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	IGANDEA
09:30-10:30						
10:45-11:45						
15:15-16:15						
17:00-18:00						
19:00-20:00						
19:30-20:30						
20:15-21:15						
20:30-21:30						

Urnietako dantzariak, Euskal Herrian barrena dantzan

Nahikari Sanchez, Unai Iraola eta Uxue Sanchez dantzariak taula gainean aritu ziren, Villabonan



Aukeran dantza taldeko kideak, aurreko asteburuan Villabonako emanaldian. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Aukeran dantza konpainiako kideak 'Maurizia naz' ikuskizuna eskaintzen ari dira, han eta hemen. Aurreko igandean Villabonan aritu ziren, eta taula gainera hiru urnietar dantzari igo ziren: Nahikari Sanchez, Unai Iraola eta Uxue Sanchez. Boskotea osatuz Maier Murua-mendiaraz eta Unai Balerdi. Emanaldian zehar dantza tradizionala eta garaikidea uztartu zituzten. Eta dantzan bezala,

baita panderoa astinduz ere. Emanaldiaren oinarrian, Maurizia Aldaiturriaga panderojole ezagunaren historia aurki daiteke: panderoa joz plazaz plaza ibili zen lehen emakumezko panderojolea, panderoarena ez ezik, bere ahots eta nortasuna lau haizetara zabaltu zituen. Bada, emakume hura gogoan, indartsu aritu ziren Aukeran dantza taldeko kideak. Eserlekuak beteta, giro polita sortu zen.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

HAURRENTZAT

"Scooby"

Larunbata, 3.
17:00.
Igandea, 4.
17:00.

HELDUENTZAT

"Uno para todos"

Larunbata, 3.
19:30, 22:15.
Igandea, 4.
19:30.
Astelehena, 5.
19:30, 22:15.
Ikuslearen eguna.



SINOPSISIA



Uno para todos

Zuzendaria: David Illundain. **Gidoia:** Coral Cruz, Valentina Viso.

Aktoreak: David Verdaguer, Patricia López Arnaiz, Clara Segura, Ana Laborde... **Herrialdea:** Espainia (2020). **Generoa:** Drama, hezkuntza. **Iraupena:** 94 min.

Lehen hezkuntzako irakaslea

David Verdaguer aktore bikaina irakasle lanetan murgildu da film honetan. Herri txiki eta ezezagun batera joan beharko du, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako gela batean lan egitera. Gelan

gaixo dagoen ikasle batek sartu behar du eta ezusteko arazo bat topatzen du: Gelakide ia guztiek ez dute ikasle hori gelara itzultzea nahi. Guraso eta ikasle gazteentzat gomendagarria.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Maddy Idigoras Alfageme

Zorionak printzesa!!
10 urte dagoeneko.
Muxu erraldoi bat
etxekoan partez
maitia.



ANDOAIN

Zorionak Xabat eta Galder

Primeran pasa
zuen 7.
urteurrenean.
Muxu potolo bana,
famiariaren partetik.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 3 eta igandea 4

GOROSPE: Rikardo Arregi, 12.
943 59 24 15. Andoain.

URNIETA

Larunbata 3 eta igandea 4

AIZPURI: Latxunbe Berri, 11.
943 336 077. Hernani.

LAN ESKAINTZA

ANDOAIN

Administraria

Administrari bat behar dugu Aita Larramendi ikastolan. Eskaintza ikusi eta izena emateko, QR kodigoan sartu behar da.



Eskaera k
aurkezteko
epea 2020ko
urriaren 16an
bukatuko da.

ANDOAINGO GUDUA

1837ko irailaren 8tik 16ra bitartean Andoainen eta aldirietan gertaturiko hainbat pasarte liburuxka batean bildu ditu Larramendi Bazkunak.

ANDOAINGO
Delgado, Enaitza eta Stop liburu-dendetan salgai.
2 euro.

Andoaingo Mintzalaguna egitasmoa martxan

Euskara praktikatzeko eta lagun berriak egiteko aparteko aukera da

Andoaingo Mintzalagunak
Komunitatea
ANDOAIN

Aurtengoa hamargarren edizioa da eta inoizko egoera arraroena izan arren, urtero bezala gogotsu hasi dira. Mintzalagun taldeak astean ordu batez batzen dira mintzapraktika egiteko, eta parte hartzaileek batzeko tokia eta ordutegia aukeratzeko dute. Horretaz gain, urtean zehar ekintza osagarriak antolatzen dira aisialdiari begira: irteerak, hitzaldiak, kultura jarduerak... Dena den, ezin da ahaztu oraindik ere oso egoera berezian gaudela. Hori dela eta, beharrezko prebentzio neurri guztiak aintzat hartuko dira.

Herriko euskararen erabileran eragiteko konpromiso irmoa dute Andoaingo Udalak eta Andoaingo AEK euskaltegiak, eta beraz, mintzapraktika programak horretan eragin nahi du, Andoain euskaldunago eta biziagoa egiten.

Informazioa

Aurrez aurre, Andoaingo AEK euskaltegietan edo udaletxeko euskara zerbitzuan; whatsapp zein telefono bidez, 662 132 558 telefono zenbakian; edo andoain@ aek.eus posta elektronikora idatziz.

Udazkeneko programa aurkeztu du Bastero Kulturguneak

Irunberriko arroilan izandako gertaera ezaguna hizpide izan zuten Andoaingo Gaztetxean, joan zen larunbatean



Prentsaurrekoan Iyuya Urrutia kultura teknikariak, Txitxu Ruiz kultura zinegotziak eta Maite Petrikorena Ondarreta ikastetxeko zuzendariak hartu zuten parte. AIURRI

Mikel Arberas ANDOAIN

Txitxu Ruiz Kultur zinegotziak kalegiroan programazioari buruzko balorazio baikorra egin eta 700 ikuslek gozatzeko aukera eduki dutela nabarmendu zuen. Horrez gain, udazkenari begira egingo diren ekitaldien berri eman zuen.

Esandakoaz gain, udaberrian bertan behera geratu ziren ekitaldiak birprogramatu eta eskaintza berriak gehitu dituzte. Gainera, Basteroko bazkideei hirugarren doako sarrera eskainiko zaie emanaldietarako eta zinemarako, udaberriko etenaldiaren erantzun gisa.

Iyuya Urrutia kultur teknikariak egingo diren ekitaldiak

azaldu zituen, beste askoren artean, musika emanaldiak, antzerkiak eta erakusketak. Saioen artean Izaro abeslariarena izan da nabarmenena, zeinak, abenduaren 18an "Limonas de invierno" albumeko kantuak eskainiko dituen Basteron.

Amaitzeko, Maite Petrikorena Ondarreta ikastetxeko zuzendariak hartu zuen hitza; datorren ostiralean (urriak 2) Ondarreta ikastetxe publikoaren 50. urteurrena deituriko erakusketa zabalduko da. Ordutegia astelehene ostiralera, 18:30-20:00etara izango da (asteartea itxita egonen da). Larunbatean, berriz, goizez 10:30etik 13:30era eta arratsalde 18:00etatik 20:30era izango da.

Nafarroako Irunberriko 1990eko gertakariak gogoan hartuz

Irunberriko arroilan izandako gertaera ezaguna hizpide izan zuten Andoaingo Gaztetxean, joan zen larunbatean



Itziar Lizarralde hizlari aritu zen, dokumentalaren ostean. UDALA

Xabier Lasa ANDOAIN

1990eko ekainaren 25ean, Irunberriko arroilan (Nafarroa), tiroketa gertatu zen Susana Arregi, Jon Lizarralde eta German Rubenach ETA kideen eta guardia zibilen artean; Jose Luis Hervás guardia zibil hilik eta German Rubenach zauritua suertatu ziren orduan. Handik ordu batzuetara, Arregi eta Lizarralde hilik agertu ziren, buruan tiro bana zeukatela.

Barne ministerioak ETako bi kideek beren buruaz beste egin izanaren bertsioa zabaldu zuen. Arregi eta Lizarralderen familiarrek eta euren abokatuak, ordea, kontraesanez beteriko bertsioa zela adierazi zuten, eta ez zioten sinesgarritasunik eman. Guardia zibilek torturen bidez informazioa atera, eta ondoren biak erail izanaren hipotesiari eutsi zioten. Besteak beste, ondorengo egunetan Nafarroan makina bat atxiloteta gertatu izanak hipotesia hori indartuko luke.

Itziar Lizarralde egia jakitea eta justizia ezartzea eskatu zuen gaztetxean egindako ekitaldian. Aldi berean, poza agertu zuen emanaldira gazte ugari agertu zelako. "Jakinmina erakusten dute, eta horrek esan nahi du anaiaren memoriak bizirik segitzen duela". Itziar Lizarralde testigantza pertsonala eskaini zuen Jon anaia hizpide hartuta, eta zenbait pasarte gogorarazi

zituen, bai anaia familiarekin etxean bizi izan zen garaioak, zein gero Iparraldeko klandestinitatean bizi izan zenekoak. Familiak bigarren bizialdi horretan bizirik ikusi zuen azken eguna hartu zuen gogoan. "GALek gogor kolpatzen zuenean errefuxiatuta zegoen gure anaia, eta tarteka bixita egitera joaten ginenean, aitortzen zigun aurreko gaua sasi artean lo egin behar izan zuela, ezkutatuta. Halako batean, bere bizia arriskuan ez jartzeko, berarekin gehiago ez geratzea erabaki behar izan genuen".

Beste zenbait pasarte ere aipatu zituen Itziar Lizarralde, Dominika Urreta amaren gora beherak tartean: "Irratia beti piztuta edukitzen zuen, semea-ri buruzko berri txarraren bat noizbait entzungo zuen erreze-loarekin". Anai-arrebek polizia- ren eskutik jasandako jazarpenak ere salatu zituen, "beldurra pasa genuen urte haietan".

Irunberriko gertakariak, hobeto argitu beharreko kasuen atalean agertzen dira azken urtetan kaleratu diren bi ikerketa lanetan: batetik, Eusko Jaurlaritzaren *Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri. Andoain, 1960-2010* agirian, eta, bestetik, Argituz giza eskubideen aldeko elkartearen *Memoria partekatuta baterantz. Andoain* txostenean.





AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Aita Larramendi ikastolak ADMINISTRARI bat behar du

Eskaintza ikusi eta izena emateko, QR kodea eskaneatu:



LAN ESKAINTZA

Jasotako informazioa Abenduaren 13ko 15/1999 Datu Pertsonalak Babesteko Legea jarraituz tratatuko da.

Eskakera aurkezteko epea: 2020ko urriaren 16a